



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2015eko azaroaren 27a

36. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, Nafarroako errepide sareko bidesarien arloko politika orokorrari buruzkoa. Carlos García Adanero jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat has dezan gure erkidegoko sexuesplotazioaren egoeraz. Ana San Martín Aniz andreak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da txosten bat egin dezan kontsumitzaileen eskubideei dagokienez “Tasa arrosa” deiturikoak daukan eraginari buruz. María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan Kolaborazio-ekonomiaren jarraipena egiteko batzorde bat abian jar dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitu munduan zehar edo eremuetan errefuxiatutako palestinarren egoera dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere nahigabea eta solidaritatea azaltzen baititu Malin eta Nigerian gertatutako erasoak direla-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten baitu Nafarren San Fermin elizan iragan azaroaren 20an egindako omenaldi faxista. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Magnesitas de Navarra enpresak Zilbetiko harrobirako daukan proiektua dela-eta Gobernuko lehen lehendakariorde eta Garapen Ekonomikorako kontseilariak egindako adierazpeni buruzkoa. Dabid Anaut Peña jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak aurreikusita daukan planik egitea langabezia Foru Komunitateko batez bestekoaren gainetik dagoen Nafarroako eskualdeetan. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (10. or.).

- Galdera, balizko uholdeen eragina minimizatze aldera Nafarroako zenbait ibaitako ibilguetan egindako jarduketei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, hizkuntzak ikasteko programen ebaluazioari buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegi jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, iruzurraren aurka borrokatzeko Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, aurreko Gobernuak ezagutarazi ez zituen dokumentuei eta txostenei buruzkoa. Santos Cerdán León jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, 2016-2017 ikasturtean Ingelesez Ikasteko Programari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen zerbitzuko langileei 2012ko aparteko soldata ordaintzeari buruzkoa. Sergio Sayas López jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Deikaztelu eta Ezkio-Itsaso eta Nafarroa eta Landak lotuko dituzten goi tentsioko lineei buruzkoa. Dabid Anaut Peña jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren finantzaketarako 2016ko aurrekontuen aurreproiektuan aurreikusitako ekarpenari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Nafarroako familien fiskalitateari buruzkoa. Mónica Doménech Linde andreak egin du (16. or.).
- Galdera, irakasleen prestakuntzaren finantzaketari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Foru Komunitateak Estatuari 2016an egin beharreko ekarpenari buruzkoa. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (17. or.).
- Galdera, Ingelesez Ikasteko Programaren ebaluazioari buruzkoa. Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egin du (17. or.).
- Galdera, landa-eskolen mantentze-lanei eta sustapenari eta aurreko legegintzaldian onetsitako dekalogoan abian jartzeari buruzkoa. Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egin du (18. or.).
- Galdera, Tuterako Fernando Remacha Musika Kontserbatorioari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, enplegu politika aktiboetarako funtsen xedeari buruzkoa. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (20. or.).
- Galdera, Nafarroak Estatuari egin beharreko ekarpenari buruzkoa. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (20. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- “Nafarroako hezkuntza sistema” gaiari buruzko eztabaida antolatze arauak (21. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Nafarroako errepide sareko bidesarien arloko politika orokorrari buruzkoa.

CARLOS GARCÍA ADANERO JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos García Adanero jaunak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako errepide sareko bidesarien arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

JABELDURAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Carlos García Adanero foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Gipuzkoako Aldundiak orain dela gutxi iragarri du bidesaria jarriko duela bere errepide-sarean; zehazki, Nafarroarekin partekatzen dituen errepide-tarteetan.

Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuari honako jabeldura hau egiten diogu:

Zein da zuen politika orokorra Nafarroako errepide-sareko bidesarien arloan?

Iruñean, 2015eko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: Carlos García Adanero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat has dezan gure erkidegoko sexu-esplotazioaren egoeraz.

ANA SAN MARTÍN ANIZ ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana San Martín Aniz andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azterlan bat has dezan gure erkidegoko sexu-esplotazioaren egoeraz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko parlamentari Ana San Martín Anizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Espanian 100.000 eta 200.000 emakume bitartean ari omen da prostituzioan, bai eta milaka gizon eta transexual batzuk ere. Nafarroan, 700 bat pertsona inguru izanen lirerateke. Datu horiek, halere, ondotik datozen kopuru gehienak bezala, oso gutxi gorabeherakoak dira, eta gaur egun oraindik ere ez dago azterlan kontrastaturik Espainian oro har eta Nafarroan zehazki prostituzioaren egiazko egoera zein den jakiteko.

Prostituitzen diren emakumerik gehien-gehienak –% 90 inguru– etorkinak dira. Prostituzioan ari diren emakumeen % 80 inguru beren borondatearen kontra ari dira; horietako asko –zenbait kalkuluren arabera, heren bat– mafiek behartuta ari dira, eta estortzioen, tratu apalesgarrien eta bortxaketen biktima dira. Mafia horietako batzuek ez dute adingabeak prostituitzeko zalantzarik izan, eta beren jardueren artean sartzen dira droga eta arma trafikoa. Kasu-kopuru zehaztugabe batean, mafiek prostituzioa uzten saiatu diren emakumeak erail dituzte; beste batzuk, berriz, jipoitu eta eraso.

Baina prostituzioaren ondorioak pairatzen dituztenak ez dira soilik sexu-esplotazioaren zuzeneko biktima diren emakumeak, baizik eta gizarte osoa. Gizakien esplotazioak, izan ere, gizaki-izatera ebasten die, salerosgaien mailara murrizteraino. Horrek berekin dakar emakumea gozamenerako objektu huts gisa ikustea, sexua gizagabetzea eta emakumearen gizonarekiko mendekotasun-harremana betikotzea.

Bestalde, gogorarazi beharra dago azken hamarkada hauetan areagotu egin dela prostituzioaren gaineko eztabaida soziala. Zenbait sektore prostituzioa legeztatzearen alde azaldu dira, uste

baitute lan bat besterik ez dela; beste batzuk, aldiz, prostituzioa abolitzearen alde daude, uste baitute esklabotasun modu bat dela. Halere, gizartean bada bi auziri buruzko adostasuna. Lehendabizi, prostituzioan zernahirengatik ari diren pertsonen kriminalizazioa eta estigmatizazioa ekidin beharra. Eta bigarrenik, sexu-esplotaziora dedikatzen diren mafien aurkako borroka areagotu beharra.

Gure ustez, gizartea arazo hori dela-eta sentibilizatu beharra dago, eta, bereziki, mafiek sexu-esplotaziora makurrarazten dituzten emakumeen sufrimendua ikusarazi.

Gure ustez, gizartea arazo hori dela-eta sentibilizatu beharra dago, eta, bereziki, mafiek sexu-esplotaziora makurrarazten dituzten emakumeen sufrimendua ikusarazi.

Hortaz, UPN parlamentu-taldeak Nafarroako Gobernuarekin premiatzen du:

1. Azterlan bat has dezan gure erkidegoko sexu-esplotazioaren egoeraz, halako ikerketarik ez dagoelako.

2. Arazoa aztertzeko lantalde bat sor dezan, gizakien trafikoaren aurkako erakundeekin harremanetan jarriko dena eta sexu-esplotazioa pairatzen duten pertsonen laguntzeko eta mafien aurka modu eraginkorragoan borrokatzeko modua jorratuko duena. Halaber, lan-talde horrek helburu izanen luke sexu-esplotazioaren eta trafikoaren biktima direnei laguntzeko plan bat taxutzea.

3. Bere elkartasuna adieraz diezaien sexu-esplotazioaren eta trafikoaren biktimei.

4. Zenbait ekintza egin ditzan Nafarroako gizartea sentibilizatzeko aldera sexu-esplotazioa pairatzen duten emakumeen dramari buruz eta sexu-esplotazioaren onarpen sozialak genero-estereotipoen betikotzean eta sexua ulertzeko moduan dauzkan ondorioei buruz.

Iruñean, 2015eko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Ana San Martín Aniz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da txosten bat egin dezan kontsumitzaileen eskubideei dagokienez “Tasa arrosa” deiturikoak daukan eraginari buruz.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita txosten bat egin dezan kontsumitzaileen eskubideei dagokienez “Tasa arrosa” deiturikoak daukan eraginari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

“Tasa arrosa” edo “Pink tax” izeneko zenbait produktutako zerga ezkutu bat baino ez da; produktu horiek, beren definizioa eta ezaugarriak direla-eta, bereizi egin ohi dira batez ere estetika-aren aldetik, nori doazen zuzenduta: gizonezkoei ala emakumezkoei.

“Tasa arrosa” deitzen zaio, hain zuzen ere, zenbait produkturi aplikatzen zaion gehikuntza ulertezinari, emakumezkoentzat izate hutsagatik. Gehikuntza hori, gainera, ez zaio zor produktu jakin baten prestazioak hobeak izateari, produkzio-kostua handiagoa izateari... baizik eta produktu horien kolorea (arrosa/urdina, oro har) edo izena ezberdina izateari.

Jada 1995ean, “Tasa arrosa” deiturikoari buruzko azterlan bat egin zen Kaliforniako estatuan (AEB). Azterlan horrek ezarri zuen emakumeek 1.300 dolar gehiago ordaintzen zituztela urtean, gizonezkoek ere erosten zituzten produktu eta

zerbitzu berengatik. Alderik handiena ematen zen higieneko eta gorputza zaintzeko produktuetan eta estetikako produktuetan.

Denboran eta espazioan gertuago, Frantzia hain zuzen ere, “Georgette Sand” talde feministak 2014an salatu zuen “Tasa arrosa” egon badagoela, saltoki handietan nahiz denda txikietan prezioei buruz egindako azterlan zabal baten bidez. Protesta horren ondorioz, Frantziako Ekonomia Ministerioak horri buruzko azterlan ofizial bat egiteko agindua eman zuen. Oraindik ere ez dakigu zeintzuk diren emaitzak eta ondorioak.

Hortaz, argi dago badagoela gai horren inguruko problematika bat, emakumeen oinarrizko eskubideei eragiten diena –berdintasunari eta duintasunari, kasu–, bai eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen oinarrizko eskubideei ere. Guztiok daukagu erosten ditugun produktuen eta zerbitzuen prezioari buruzko informazio egia eta egokia jasotzeko eskubidea, baina “Tasa arrosaren” kasuan, zenbait produkturen prezioa modu ulertezinean igotzen dela ikus daiteke, eta kontsumitzaileari ez zaio azaltzen zer dela-eta gertatzen den hori; beharbada izanen da interes aitorrezinei erantzuten dietelako edo/eta estatuko eta foru legedian kontsumitzaileei eta erabiltzaileei aitortutako eskubideak urratzen direlako.

Berez bidegabekoa den “Tasa arrosa” horrek badu emakumeentzako bidegabekoa den beste osagai gehigarri bat: soldata-arraila zeina % 29,57ekoa baitzen 2014an Nafarroako Estatistika Institutuaren arabera, Estatu osoko handienetarikoa bat, Aragoi bakarrik gaintzen duena; izan ere, gizonezkoek 27.632,80 euroko irabaziak izan zituzten batez beste urte horretan, eta emakumezkoek, berriz, 19.462,13 eurokoak.

Nafarroako Foru Komunitateak barnermerkataritzaren gaineko eskumen osoa du, deusetan ukatu gabe prezioen politika orokorra, ondusunen zirkulazio librea lurralde nazionalen eta lehiaren defentsari buruzko legeria, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko Lege Organikoaren 56.1.d) artikuluen arabera.

Gainera, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.24 artikuluan ezarritakoa-

ren arabera, Nafarroako Foru Komunitateak eskumen osoa du Merkataritza eta Industria Ganberaren arloari dagokionez; betiere, legedi orokorraren oinarritzako printzipioekin bat eta Estatuak kanpo merkataritzaren arloan dituen eskumenak deuse-tan ukatu gabe.

Nafarroan merkataritza arautzen duen 17/2001 Foru Legean eta Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera Ofizialari buruzko 17/2015 Foru Legean jaso ziren merkataritza arautzeko eskumen mugatu horiek. Bi lege horiek bide bat irekitzen dute Foru Erkidegoko Gobernuak eta Nafarroako Merkataritza Ganberak berak aurrena auzi hau ikertu eta hurrena arautu ahal izan dezaten "Tasa arrosa" izenekoak ukitutako produktu eta zerbitzuak eskuratzean kontsumitzaile guztiei zor zaien berdintasunarekiko errespetuari buruz; izan ere, kasu askotan, produktu eta zerbitzu horiek "oinarrizkoak" edo premia-premia-azkoak dira.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu-a premiatzen du:

1. Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganbera Ofizialarekin batera txosten bat presta dezan, jakite aldera ea "Tasa arrosa" –produktu beraren edo ezaugarri bertsuko produktu baten balioaren gehikuntza ulergaitza, produktu hori emakumeei zuzendua denean– existitzen den, zenbatekoa den eta kontsumitzaileen eskubideei dagokienez zer eragin duen.

2. Arautu dezan saritzea, Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenak baliatuta, "Tasa arrosa" aplikatzen ez duten produktu edo zerbitzuak saltzen edo banatzen dituzten establezimenduak, handizkariak edo/eta banatzaileak.

3. "Tasa arrosa" dela-eta egiten den txosten hori ikusita, kanpaina bat susta dezan tasa hori aplikatzen ez duten establezimenduak ikusarazte aldera; adibidez, eranskailuak jarrita establezimendu horien atean, zeinen bidez ohartaraziko baita establezimendu horretan ez dela "Tasa arrosa" aplikatzen.

Iruñean, 2015eko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: María Teresa Sáez Barrao

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu-a premiatzen da Nafarroan Kolaborazio-ekonomiaren jarraipena egiteko batzorde bat abian jar dezan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu-a premiatzen baita Nafarroan Kolaborazio-ekonomiaren jarraipena egiteko batzorde bat abian jar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernu-a premiatzen da Nafarroan Kolaborazio-ekonomiaren jarraipena egiteko mahai bat abian jar dezan.

Kolaborazio-ekonomia goraka ari den sistema ekonomiko bat da, zeinetan plataforma digitalen bidez partekatzen baitira ondasunak eta zerbitzuak. Askok dira jar daitezkeen adibideak, baina ondasunen esparruan ezagunenak dira logela partikularrak beste pertsona batzuei Interneten bidez alokatzea, edo ibilgailu pribatu batean leku bat lagatzea bidaia jakin baterako. Zerbitzuen kasuan, berriz, ekintza profesional edo profesionala ez den batean zenbait orduz laguntzea: pintura, lorezaintza, edo txakurrak paseatzera ateratzea.

Kolaborazio-ekonomia iraultza ari da ekartzen ohiko kontsumo-moldeetara, sarrera-langa oso gutxi fenomeno geldiezina baita. Sistema ekonomiko hau bizirauteko modu ona da batzuentzat; baina, arautu gabe dagoenez, eragina dauka beste sektore batzuetan, lehia areagotzen zaiela ikusten dutenak, desberdinkerian areagotu ere; izan ere, kasurik gehienetan, horiei ez zaizkie eskatzen betekizun berberak, gehien-gehienetan zerbitzu bertsua dena eman ahal izateko.

Alde baten nahiz bestearen arauketa eklosio digitalaren aurrekoa da; hori dela-eta, jokaleku berri baterako arauak ezarri beharra dago, zerga, segurtasun, erantzukizun nahiz kontsumitzailearen babesaren arloko betekizunak bermatuko dituzte-

nak. Ezinbestekoa da hitz egiteko esertzea eta ukitutako guztien artean akordioetara heltzea.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Nafarroan Kolaborazio-ekonomiaren jarraipena egiteko mahai bat abian jar dezan, ukitutako eragile guztiak batuko dituen, berrikuntzari eta ekonomia-estrategia berrien garapenari trabak jartzea ekidinez eta, aldi berean, monopolio berriak sortzea edo ekintzaile txikiak ekonomia ezkutuaren esparruan jardutera bultzatzea ekidinez.

Iruñean, 2015eko azaroaren 19an

Eleduna: María Chivite Navascués

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitu munduan zehar edo eremuetan errefuxiatutako palestinarren egoera dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko azaroaren 23an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten du 1948an eta 1967an errefuxiatu bihurtu ziren palestinarren egoera dela-eta, zeinak harrezkero Libanoko, Jordaniako eta Siriako eremuetan edo munduan zehar bizi baitira. Aldi berean, nazioarteko erkidegoari erregutzen dio nazioarteko zuzenbidea errespetatu eta errespetaraz dezan, hartara bermatuko baita lekuz aldatutako pertsonen itzulera-eskubidea, lurralde okupatuaren okupazioarekin bukatuko duena Gazan, Zisjordanian nahiz Ekialdeko Jerusalemen, bai eta Gazaren blokeoaren amaiera ere.

2. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du palestinarrek eskubidea dutela plangintza-sistema bidezkoa eta ez-diskriminatzailea edukitzeko, zeinetan erkidegoak plangintza-prozesuaren maila guztietan parte hartuko baitu eta zeinaren bidez amaiaraziko baita palestinarren jabetzako etxeen,

eskolen eta azpiegitura zibilen eraispena, horiek erabili ezina eta lekualdatzeak eragiten dituenak.

3. Nafarroako Parlamentuak zoriondu nahi du Nazio Batuen Errefuxiatu Palestinarrentzako Agentziak egindako lana, eta uste du beharrezkoa dela, lan horrekin jarraitzeko, nazioarteko zuzenbide humanitarioa errespetatzea eta Nazio Batuen agentziei eta GKE-ei iristen laguntzea laguntza humanitarioa banatzeko eta Siriako populazio zibilarri laguntzeko.

4. Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio adierazpen hau Kanpo Arazo-erretako Ministerioaren bidez igor diezaien Israelgo, Siriako, Libanoko, Jordaniako, Gazako zerrendako eta Zisjordaniako erakunde eskudunei, eta dei egiten die hartutako konpromisoak bete ditzaten eta Palestinako herriaren giza eskubideak ez urratzea bermatuz, Palestinako herria azken akordio ororen parte integraltzat hartu behar baita”

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere nahigabea eta solidaritatea azaltzen baititu Malin eta Nigerian gertatutako erasoak direla-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko azaroaren 23an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak dei egiten du eta bere konpromisoa erakusten du gizartearekin batera hausnarketa bat egiteko, emandako erantzuna giza eskubideen eta printzipio demokratikoen defentsan oinarritu dadin.

2. Nafarroako Parlamentuak bere nahigabea eta solidaritatea azaltzen ditu azken egunotan Bamakon (Mali) eta Nigerian izandako erasoetan hilda nahiz zaurituta gertatu ziren pertsonak direla-eta.

3. Nafarroako Parlamentua harremanetan jarriko da Maliko eta Nigeriako agintariekin, eta gure atsekabearen eta solidaritatearen berri emanen die zuzenean.

4. Nafarroako Parlamentuak herritarrei dei egiten die giza eskubideak urratzen dituzten gisa honetako erasoak salatze aldera deitzen diren mobilizazioetan”.

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten baitu Nafarren San Fermin elizan iragan azaroaren 20an egindako omenaldi faxista.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko azaroaren 23an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du Nafarren San Fermin elizan iragan azaroaren 20an egindako omenaldi faxista, uste baitu bakearen, bizikidetasunaren eta giza eskubideen defentsaren balioen aurkakoa dela.

2. Nafarroako Parlamentuak Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritza eta Barne Ministerioa

premiatzen ditu iker dezaten ea ekitaldi horretan deliturik egin ote zen.

3. Nafarroako Parlamentuak erabaki hau helaraziko die Madrilgo Artzapezpikutzari, Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritzari eta Nafarren San Fermin Errege Kongregazioari berari”.

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Magnesitas de Navarra enpresak Zilbetiko harrobirako daukan proiektua dela-eta Gobernuko lehen lehendakariorde eta Garapen Ekonomikorako kontseilariak egindako adierazpenei buruzkoa.*DABID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Dabid Anaut Peña jaunak aurkeztutako galdera, Magnesitas de Navarra enpresak Zilbetiko harrobirako daukan proiektua dela-eta Gobernuko lehen lehendakariorde eta Garapen Ekonomikorako kontseilariak egindako adierazpenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Dabid Anaut Peñak, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentaria denak, Legebiltzarraren Erregelamenduari jarraikiz, ondoko ahozko galdera egin nahi du Osoko Bilkuran Nafarroako Gobernuak erantzun dezan.

2015eko azaroaren 15eko Diario de Navarrako kronika batean jasotakoaren arabera, Magnesitas de Navarra enpresaren harrobi proiektua Zilbetira

egokitzeko aukera aztertzen ari da Nafarroako Gobernua. Kazetariak emandako argibideen arabera, Gobernua legeari dagozkion irtenbideak aztertzen ari da, betiere aipatutako proiektua eta ingurumen alorreko legedia bateragarri egiteko.

Kronikak Manu Ayerdi Lehendakariordearen adierazpenen berri ematen zuen, eta bertan azaltzen zenez, eta kronika bera hitzez hitz jasota, "se ha creado un equipo con la empresa y los alcaldes para ver cómo damos una vuelta a toda la legislación que regula la posible compatibilidad de actividad económica con exigencias medioambientales".

Horretaz gain, honako hau ere hitzez hitz kronikatik jasota dago: "Si tenemos que revisar alguna normativa autonómica, los planes de gestión las Zonas Especiales de Conservación (ZEC) u otras cosas, lo haremos" señaló literalmente.

Zuzena da kronikak jasotako informazioa eta zuzen jaso da Lehendakariordeak adierazitakoa? Eta, hala baldin bada, zein dira legeak, araudi autonomikoak, ZECak edo bestelakoak aldatzeko nahiz egokitzeko egindako urratsak eta zein dira aurrerantzean aurreikusten direnak?

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak aurreikusita daukan planik egitea langabezia Foru Komunitateko batez bestekoaren gaintetik dagoen Nafarroako eskualdeetan.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak aurreikusita daukan planik egitea langabezia Foru Komunitateko batez bestekoaren gaintetik dagoen Nafarroako eskualdeetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu taldeko Alberto Catalán Higuera sek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Duela sei urtetik hona nabarmen pairatu dugun krisi ekonomikoak besteak beste ekarri du beren

lanpostua galdu duten edo lanpostu bat lortu ezin duten pertsonen kopuruak gora egitea.

Espainiako gainontzeko lurraldeetako baina hobe da Nafarroako errealitatea, eta populazio aktiboarekiko langabetu-kopurua Espainiako txikiena da. Halere, langabezia-ehunekoak Nafarroako batez bestekoaren gaintetik daude gure erkidegoko eremu jakin batzuetan. Areago, Gobernuak ekonomia lehendakariorde Aierdi jaunak Osoko Bilkuran onartu duen legez, herri batzuetan –Castejonon, Cascanten edo Corellan, kasu-modu kezkarri gaintitzen da erkidegoko batez bestekoa.

Hori dela-eta, eta krisiaren ondorioak denboran luzatzen ari direnez, Gobernuari honako hau galdetzen diogu:

Gobernuak ba al du berariazko planik egiteko asmorik, langabezia erkidegoko batez bestekoaren gaintetik dagoen Nafarroako eremuetan?

Ba al du berariazko ekintzarik egiteko asmorik, Nafarroako langabeziaren batez bestekoa modu nabarmen eta kezkarri gaintitzen den herrietan?

Corellan, 2015eko azaroaren 17an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, balizko uholdeen eragina minimizatze aldera Nafarroako zenbait ibaitako ibilguetan egindako jarduketei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, balizko uholdeen eragina minimizatze aldera Nafarroako zenbait ibaitako ibilguetan egindako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu taldeko Alberto Catalán Higuera sek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako

Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ebro, Aragoi, Arga, Ega, Alhama, Linares eta Odrón ibaien ibilguetan 2014an eta 2015ean izandako uholdeen ostean, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak eta Nafarroako Gobernuak zenbait jarduketa egin eta diruz lagundu dituzte, hurrenez hurren, ibai horien ibilguetan, bi eta izandako kalteak konpondu ere.

Azken urteotan, kaltetutako udalek eta herri horietako nekazariak eskatu dute ibai horien ibilguak garbitzea, aldian-aldian errepikatzen diren uholdeak minimizatze xedez.

Horregatik, eta egindako jarduketan berri izan ondoren, hauex jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuaren ustez, ibai horien ibilguen egungo egoera egokia al da, ala bestelako jarduketa batzuk egin beharko al ziren, egindakoez gain?

Corellan, 2015eko azaroaren 17an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, hizkuntzak ikasteko programen ebaluazioari buruzkoa.

CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako galdera, hizkuntzak ikasteko programen ebaluazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderari atxikitako Carlos Gimeno Gurpegui, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Gutxi dakigu Hezkuntza Departamentuak Ingelesean Ikasteko Programa dela-eta iragarritako azterlanari edo ebaluazioari buruz. Prentsaren bidez jakin dugunaren arabera, departamentuak 8 galderako orri bat bidali die ikastetxeei, eta hiru aste daukate erantzuteko. Orri horretan –ez dakigu horrek zer-nolako zorrotasun zientifikoa dau-

kan– galdetzen da zentroak 8 arlotan hartzen dituen neurriez (gutxiengoak, hezkuntza premia bereziak, Ingelesez Ikasteko Programatik ez datozen errepikatzaileak, Ingelesez Ikasteko Programako ikasleen hezkuntza-laguntza, Ingelesez Ikasteko Programak ikastetxeari ekarritako onurak eta zailtasunik handienak).

Hona galdera:

Aipatu eta azaldutako dokumentuaren bidez ikastetxeek igorritako datuetan oinarrituko al da Ingelesez Ikasteko Programa dela-eta Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuak iragarritako ebaluazioa?

Iruñean, 2015eko azaroaren 17an

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, iruzurraren aurka borrokatzeko Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, iruzurraren aurka borrokatzeko Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Guzmán Garmendia Pérezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Ekonomia ezkutua eta iruzur fiskala dira gizarte bati aurrera egiten –eta, une honetan, krisitik

bermeekin irteten– eragozten dioten trabarik handienak. Ekitatea eta iruzur fiskalarekiko zero tolerantzia dira gizarte-bizikidetasuneko berdintasunaren bermea, zeinean hiritar, enpresa eta erakunde bakoitzak jartzen baitute dagokien parte, ongizatearen estatua behar adina tresnez hornitze aldera, ongizatearen estatua errealitate bat izan dadin.

Administrazioa –kasu honetan, Nafarroako Gobernuak– behartuta dago zerga-bilketaren arloko erantzunkidetasuna zaintzera, zergarik ordaintzen ez duen jarduerak berekin dakarren solidartaterik ezaren inpaktua ahal den gehiena ahultzeko, gizarteak jarritako zerbitzuez aprobetxatzen baita, eta iruzurgileena ere –bai pertsona fisikoak, bai juridikoak–, horiek ere dagokiena ordaintzen duten nafar guztien artean eraikitako oinarriarekin egiten baitute beren lana.

Nafarroako Gobernuak zer neurri ari da hartzen iruzurrari aurre egiteko?

Iruñean, 2015eko azaroaren 17an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, aurreko Gobernuak ezagutarazi ez zituen dokumentuei eta txostenei buruzkoa.

SANTOS CERDÁN LEÓN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Santos Cerdán León jaunak aurkeztutako galdera, aurreko Gobernuak ezagutarazi ez zituen dokumentuei eta txostenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko foru parlamentari Santos Cerdán Leónnek, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Azaroaren 16ko Mahaiaren eta Eledunen Bartzarraren ostean hedabideen aurrean egindako agerraldian, Geroa Baiko eledun Martínez jaunak hitzez hitz esan zuen Gobernuaren lehendabiziko zeregina izan dela “ jakitea, tiraderak irekitzea, agiriak ikustea, agiri ezkutua eta aurreko Gobernuak iragarri ez zituen txostenak aurkitzea”

Ezkutuko zer agiri aurkitu dira?

Iruñean, 2015eko azaroaren 17an

Foru parlamentaria: Santos Cerdán León

Galdera, 2016-2017 ikasturtean Ingelesez Ikasteko Programari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, 2016-2017 ikasturtean Ingelesez Ikasteko Programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

gelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Hezkuntza Departamentuaren arduradunek eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako zuzendariak azaroaren 17an izandako bileraren ostean adierazitakoa dela-eta,

Hezkuntza Departamentuak erabakita al dauka Nafarroako Hezkuntza Sistemari 2016-2017 ikasturtean hasten diren haurrak ezin izanen direla sartu Ingelesez Ikasteko Programari, Lehen Hezkuntzako zuzendariekin izandako bileran kontseilariak adierazi zuen bezala?

Corellan, 2015eko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeko Alberto Catalán Higuera, Legebiltzarreko Erre-

Galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen zerbitzuko langileei 2012ko aparteko soldata ordaintzeari buruzkoa.

SERGIO SAYAS LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Sergio Sayas López jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen zerbitzuko langileei 2012ko aparteko soldata ordaintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

UPN-Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako kide

Sergio Sayas Lópezek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak mozio bat onetsi zuen 2015eko urriaren 8ko Osoko Bilkuran, zeinak ezartzen baitzuen Nafarroako Foru Komunitatearen zerbitzuko langileek 2012ko aparteko ordainsaria kobratuko dutela eta % 1 igoko zaiela soldata, Espainiako gainontzeko administrazio publikoetako langileek bezala.

Gobernuak noiz ordainduko du 2012ko aparteko ordainsaria?

Iruñean, 2015eko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Sergio Sayas López

Galdera, Deikaztelu eta Ezkio-Itsaso eta Nafarroa eta Landak lotuko dituzten goi tentsioko lineei buruzkoa.

DABID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Dabid Anaut Peña jaunak aurkeztutako galdera, Deikaztelu eta Ezkio-Itsaso eta Nafarroa eta Landak lotuko dituzten goi tentsioko lineei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Dabid Anaut Peñak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako ahozko galdera egin nahi du Osoko Bilkuran, Nafarroako Gobernuak erantzun dezan.

Espainiako Gobernuak argindarra garraiatzeko 2015-2020 arteko plana onartu du berriki, eta tartean da Deikaztelu eta Ezkio-Itsaso lotuko dituen goi tentsioko argindar linea. Ez, ordea, Deikazteluko azpiestazio elektrikoa.

Horretaz gain, Espainiako Gobernuak onartutako planean Nafarroa eta Landak lotuko dituen beste linea bat ere aipatzen da, linea hori zein udalerritatik pasako den zehazten ez duen arren.

2013ko maiatzean 173 udal eta kontzejutako alkatek Deikaztelu eta Itsaso arteko proiektua gelditzea eskatu zuten, eta urte bereko urrian 247 hautetsik eta 247 eragile sozialek manifestu bat aurkeztu zuten proiektu hori bera bertan behera utzi dezaten eskatuz.

Bestalde, Gobernuak sostengatzen duten indar politikoek sinatutako programa-akordioak honela dio, hitzez hitz:

“Hornikuntza-sare elektrikoa, egin beharreko jarduketak eta haien plangintza eta gauzatzea xeheki aztertzea. Testuinguru horretan, Itsaso eta Deikaztelu arteko linean proiektatutako azpiegitura beharrezkoa den erabakiko da, energia husteko benetako eskaria kontuan izanik, baita azpiegiturak ingurumeneari duen eragina, dagozkion udalen iritzia eta kontuan hartu beharreko gainerako gai erabakigarriak ere”

Horiek guztiak kontuan hartuta,

Zein da Nafarroako Gobernuak goi tentsioko linea horren inguruan duen jarrera eta programa-akordioak dioena betetzeko egin dituen urratsak? Eta Espainiako Gobernuak argindarra garraiatzeko 2015-2020 planean aipatzen den Nafarroaren eta Landen arteko lineari dagokionez, zer da Nafarroako Gobernuak horri buruz dakiena?

Iruñean, 2015eko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña

Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren finantzaketarako 2016ko aurrekontuen aurreproiektuan aurreikusitako ekarpenari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bazarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren finantzaketarako 2016ko aurrekontuen aurreproiektuan aurreikusitako ekarpenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeko Alberto Catalán Higuera sek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan azaroaren 18an, Nafarroako Gobernuak 2016rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen aurreproiektua onetsi zuen.

Aurreproiektu horretan jasotzen diren zenbatekoen arabera –aurreproiektuak garbi uzten du Gobernuak zer politika garatu nahi dituen–, Hezkuntza Departamentuak 52,4 milioi euroko ekarpena egingen dio Nafarroako Unibertsitate Publikoari, Iruñeko eta Tuterako campusetarako; alegia, aurreko aurrekontuetako diru-kopuru berbera (2012tik luzatutako aurrekontuak ziren haien erreferentzia).

Hori dela-eta, honako hau galdetzen diot Hezkuntza Departamentuari:

Kontuan izanda Gobernuan egun dauden parlamentu-taldeek azken urteotan diru-ekarpenaren zenbateko hori kritikatu dutela, Departamentuak zergatik mantentzen du diru-ekarpen berbera NUP finantzatzeko?

Corellan, 2015eko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Nafarroako familien fiskalitateari buruzkoa.

MÓNICA DOMÉNECH LINDE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mónica Doménech Linde andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako familien fiskalitateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeko Mónica Doménech Lindek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Pobrezia pairatzeko arriskuan edo pobrezia egoeran dauden Nafarroako familiez ari baldin bagara, eta horretarako aintzat hartzen baldin baditugu zenbait balio zehatz, balio horiek berak jasoko al dituzue gutxieneko familiarra eta seme-alabarengatik gutxienekoa ezartzeko, eta gutxieneko horiek Nafarroaren errealitatera egokitzeko?

Laparra lehendakariordea ohartzen al da erreforma fiskalak bereziki zigortzen dituela seme-alabak dituzten familiak? Izan ere, gutxieneko pertsonalarengatik eta seme-alabengatik kenkariaren zenbatekoa 1998ko zenbatekoetan oinarrituta egiten jarraitzen da.

Nafarroako Gobernua prest al dago beste fiskalitate bat taxutzeko, seme-alabak dituzten familiek dakarten aberastasun sozialarekin bat datorrena, Nafarroan belaunaldi-ordezkapenaren helburua lortzeari dagokionez?

Iruñean, 2015eko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

Galdera, irakasleen prestakuntzaren finantzaketari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, irakasleen prestakuntzaren finantzaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu taldeko Alberto Catalán Higuera sek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako

Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan azaroaren 18an, Nafarroako Gobernuak 2016rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen aurreproiektua onetsi zuen.

Aurreproiektu horretan jasotzen diren zenbatekoen arabera –aurreproiektuak garbi uzten du Gobernuak zer politika garatu nahi dituen–, aurreko aurrekontuetan baino askoz ere diru gutxiago egonen da irakasleen prestakuntzarako (2012tik luzatutako aurrekontuak ziren haien erreferentzia).

Hori dela-eta, honako hau galdetzen diogu Hezkuntza Departamentuari:

Departamentuak zer dela-eta murriztu du irakasleen prestakuntza finantzatzeko aurrekontua, baldin eta frogatu bada oso egokia eta beharrezkoa dela Nafarroako hezkuntza-sistema hobetzen jarraitzeko?

Corellan, 2015eko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Foru Komunitateak Estatuari 2016an egin beharreko ekarpenari buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Belrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Foru Komunitateak Estatuari 2016an egin beharreko ekarpenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Belrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer irizpide baliatu du Foru Komunitateak Estatuari egin beharreko ekarpena 515,6 milioi euroan finkatzeko, 2016rako aurkeztu dituen Nafarroako aurrekontuetan?

Iruñean, 2015eko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Ana Belrán Villalba

Galdera, Ingelesez Ikasteko Programaren ebaluazioari buruzkoa.

MIREN JULIA ARANOASTIGARRAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, Ingelesez Ikasteko Programaren ebaluazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilari José Luis Mendoza Peña jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan da programa-akordioak jasotzen duen Ingelesez Ikasteko Programaren ebaluazioa? Hezkuntza Departamentuak zer urrats egin ditu orain arte, eta zer urrats aurreikusi ditu ebaluazioa egiteko? Zer epetan aurreikusten duzue bukatzea? Departamentuak zer baliabide tekniko eta material dauka ebaluazio hori egiteko?

Iruñean, 2015eko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Aranoa Astigarragak, Legebil-

Galdera, landa-eskolen mantentze-lanei eta sustapenari eta aurreko legegintzaldian onetsitako dekalogoia abian jartzeari buruzkoa.

MIREN JULIA ARANOA ASTIGARRAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, landa-eskolen mantentze-lanei eta sustapenari eta aurreko legegintzaldian onetsitako dekalogoia abian jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Aranoa Astigarragak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilari José Luis Mendoza Peña jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Programa-akordioan apustu irmo bat egiten da landa-eskolen mantentze-lanen eta sustapenaren alde eta aurreko legegintzaldian Parlamentuaren gehiengoak onetsitako dekalogoia abian jartzearen alde. Zer urrats egiten ari dira akordio hori betetzeko?

Iruñean, 2015eko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

Galdera, Tuterako Fernando Remacha Musika Kontserbatorioari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako Fernando Remacha Musika Kontserbatorioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, idatziz erantzun dakizkion.

Tuterako "Fernando Remacha" Musika Kontserbatorioak musika-irakaskuntza eskaintzen die Tuterako eta Nafarroako Erriberako ikasleei. Bere hezkuntza-proiektuan ikasleen oinarriko prestakuntza aurreikusten du funtsean, eta orobat bermatu behar du musika-prestakuntza profesionalerako gaitasuna erakusten duten ikasleen sustapena.

Kontserbatorioa Tuterako Udalaren menpe dago, eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren diru-laguntza jaso izan du urtero, Erriberako hiriburuan musikako ikaskuntza profesionalen jarraitutasuna bermatze aldera.

Hori dela-eta, galdera hauei idatziz erantzutea eskatzen dut:

1.- Hezkuntza Departamentuak zer asmo dauka Tuterako "Fernando Remacha" Musika Kontserbatorioari dagokionez?

2.- Departamentuak zer diru-laguntza aurreikusi du Tuterako Udalarentzat, 2016an zentroa finantzatzen laguntzeko?

Corellan, 2015eko azaroaren 17an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, enplegu politika aktiboetarako funtsen xedeari buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, enplegu politika aktiboetarako funtsen xedeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Garapen Ekonomikorako Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Foru Komunitateak kudeatu beharreko enplegu politika aktiboetarako 2015erako funtsen banaketa ezagututa –Nafarroari 15,1 milioi dagozkie, eta horiei gehitu behar zaizkie Enplegurako Aktibazio Programa Berezirako 733.000 euro–, funts horiek zertarako baliatuko dira enplegu politika aktiboen barruan?

Iruñean, 2015eko azaroaren 17an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Nafarroak Estatuari egin beharreko ekarpenari buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Nafarroak Estatuari egin beharreko ekarpenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak 2016rako prestatutako Nafarroako aurrekontuen aurreproiektua ezagutu da, eta horren arabera Foru Komunitateak 515,6 milioi euroko ekarpena egingen dio Estatuari. Hori ikusirik, zer irizpidetan oinarritu da Nafarroako Gobernuaren erabakia, zenbateko hori, Estatu aurrekontu orokorretan aurreikusitako 616 milioi euroetatik urrun gelditzen dena, Estatuarentzako ekarpen gisa ezartzearena? Zer gai gelditzen da Gobernu zentralarekin negoziatzeko?

Iruñean, 2015eko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

“Nafarroako hezkuntza sistema” gaiari buruzko eztabaida antolatzeko arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 23an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. “Nafarroako hezkuntza sistema” gaiari buruzko eztabaida antolatzeko arauak onestea:

“1. Eztabaida hasiko da Osoko Bilkura monografikoa proposatu duen parlamentu-taldearen eledunaren mintzaldiarekin, gehienez ere hogeita minutu iraunen duena.

Ondoren, eskatzen duten parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarten eledunak mintzatuko dira, eta denbora-tarte bera izanen dute. Mintzaldien hurrenkera kideen kopuruari begira ezarriko da, gehien dituztenetik hasi eta gutxien dituztenekin bukatzeko.

2. Aurreko txanda bukatuta, Nafarroako Gobernu kide bat mintzatzen ahalko da, eztabaidagai diren gaien inguruko bere jarrera azaltze aldera, aurreko arauan ezarritako iraupen berarekin.

3. Eztabaida bukatuta, bilkura ordubetez etenen da, eta Mahaiari erabaki proposamenak aurkezteko epe bat irekiko da. Parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak gehienez ere bost erabaki proposamen aurkezten ahalko

ditu, eztabaidagaiarekin zuzeneko zerikusia izanen dutenak.

Proposamenak bilkura eten eta hamabost minutuko epean aurkeztu beharko dira. Jarraian, ondoko hamabost minutuetan, proposamenak onartuko dira eta parlamentu-taldean edo foru parlamentarien elkarten eledunei helaraziko zaizkie, zeinek hogeita hamar minutu izanen baitituzte proposamenak aztertzeko.

4. Bilkura berriro hasten denean, onarturiko proposamenak batera defendatuko dira, gehienez ere hamar minutuz, 1. arauan ezarritako eztabaida-hurrenkerrari jarraituz, eta eledunek haien iritzia emanen dute, halaber, gainontzeko parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarteek aurkezturikoen inguruan.

5. Proposamenen eztabaida amaiturik, aurkezpen-hurrenkerrari jarraituz bozkatuko dira. Parlamentu-talde edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak egindako proposamenak batera bozkatuko dira. Halere, edozein eledunek hala eskaturik, aparte bozkatzen ahalko dira.”

2. Agintzea arau horiek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen.

Iruñean, 2015eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

